



ESKUALDEETAKO EDO EREMU URRIKO HIZKUNTZEN EUROPAKO GUTUNA

ararteko

Herriaren Defendatzailea
Defensoría del Pueblo



Zer da Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna?

1992an [Europako Kontseiluan](#) egin zen nazioarteko ituna da. Gaur egun, Europako 25 herrialdek konpromisoa hartu dute Gutunak eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak babesteko eta sustatzeko dituen konpromisoak betetzeko. Espainiak 2001ean hartu zuen konpromiso hori. [Gutuna](#) Estatuko Aldizkari Ofizialean irakur daiteke (gaztelaniaz) eta Euskaltzaindiaren [web atarian](#) (euskaraz).

Zer dira eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak?

Gutunak eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzat hartzen ditu hizkuntzak, estatu bateko hizkuntza ofiziala ez direnak, estatu horretako lurraldean tradizioz hitz egiten direnak, estatu horretako herritarrak direnak eta hizkuntza horiek hitz egiten ez dituzten biztanleak baino talde txikiagoa osatzen dutenak.

Espainiaren kasuan, eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak Euskadiko, Kataluniako, Balear Uharteetako, Galiziako, Valentziako Erkidegoko eta Nafarroako Autonomia Estatutuek hizkuntza ofizialtzat hartzen dituztenak dira.

Zer konpromiso ditu Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunak?

Printzipio orokor gisa, estatuek hitz ematen dute eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza bat erabiltzeari dagokionez bereizketarik, bazterkeriarik, murrizketarik edo lehenetasun justifikatu gabe oro ezabatzeko. Eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetako hitzunen eta gainerako biztanleen arteko berdintasuna sustatzeko jarduketak ez dira diskriminaziotzat hartuko.

Halaber, Gutunean jasotzen dira estatuek jarraitu beharreko hizkuntza-politikaren, -legeriaren eta -praktikaren printzipioak. Printzipio horien artean daude:

- Eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak kultura-aberastasunaren adierazpen gisa ezagutzea.

- Hitz egiten den eremu geografikoen osotasuna errespetatzea.
- Eskualdeetako eta eremu urriko hizkuntzak irmo sustatzea, eta, bereziki, hizkuntza horiek bizitza publikoan eta pribatuan ahoz eta idatziz erabiltzea.
- Lurralde edo estatu desberdinetan bizi diren eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza bereko hiztunen arteko harremanak eta trukeak sustatzea.
- Eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak irakastea eta ikastea.
- Eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzei buruzko ikerketa sustatzea.
- Hitz egiten ez dutenek ikasteko aukera.

Gutunak konpromiso-zerrenda luzea du, eta estatuei aukera ematen die horietako zeinekin konprometitzen den aukeratzeko, baina baldintza batzuk jarrita: gutxienez 35 konpromiso onartu behar dituzte. Horietatik hiru 8. artikuluan (irakaskuntza) eta 12. artikuluko (kultura) beste hirutan agertzen diren konpromisoekin bat etorri behar dira. Halaber, hurrengo artikuluetako bakoitzaren konpromiso bat aukeratu behar dute, gutxienez: 9 (justizia), 10 (administrazio agintariak eta zerbitzu publikoak), 11 (komunikabideak) eta 13 (bizitza ekonomikoa eta soziala).

Espainiak 69 konpromiso onartu ditu. Zein diren jakiteko, [Gutuna Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zeneko orrialdeko](#) aitortpena kontsulta dezakezu.

Nola kontrolatzen da Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna betetzea?

[Sistemaren erreforma](#) baten ondoren, konpromisoa hartu duten estatu guztiek txosten bat aurkeztu behar diote [aditu-batzorde](#) bati bost urtean behin, beren hizkuntza-politika azaltzeko eta onartu duten konpromiso bakoitza betetzeko zer egin duten azaltzeko. Batzordeak txostenak aztertzen ditu. Gainera, interesa duten elkarteek hizkuntza politikari eta konpromisoak betetzeari buruzko iritziak eman diezazkiokete batzordeari, eta batzordeak ere kontuan hartuko ditu.

Adituen batzordeak ebaluazioa prestatzen du eta [Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeari](#) helarazten dio, erakunde horretako organo politiko gorena baita. Ministroen Batzordeak estatu bakoitzerako gomendioak dituen ebazpena onartzen du. Gomendioren batek berehalako jarduerak eskatzen dituela adierazten bada, Estatuak bi urte eta erdiko epean hartzen dituen neurrien berri eman behar du.

Zer gomendio ematen dizkio Espainiari euskarari buruz?

Ministroen Batzordeak Espainiarako egindako [azken gomendioak](#) 2019ko abendukoak dira. Ez dago euskarari buruzko berriazko gomendiorik. [Aditu-batzordearen txostenean](#) zehatzago ikus daiteke hartutako konpromiso ia guztiak bete direla. Hala ere, batzuk partzialki baino ez dira bete. Hobetzeko, aditu-batzordeak hau gomendatu zuen:

- Euskararen erabilera areagotzea Osakidetzan eta Ertzaintzan.
- Botere Judizialaren Lege Organikoa aldatzea, prozedura judizialetan hizkuntza autonomikoen erabilera bermatzeko, alderdi bakar batek eskatuta.
- Hizkuntza autonomikoen erabilera hobetzea Estatuko Administrazio Orokorreko organoetan hizkuntza propioa duten autonomia-erkidegoetan.

Ministroen Batzordeak lehentasunezko azken bi gomendioak hartu zituen kontuan. Horregatik, 2021eko martxoan, aditu-batzordeak [berriro ikuskatu zituen](#) horiek betetzeko hartutako neurriak. Ondorioztatu zuen Botere Judizialaren Lege Organikoa ez dela aldatu, nahiz eta beste neurri batzuk hartu diren, eta Espainiako Estatuak ez duela estrategia egituraturik Estatuko Administrazio Orokorrean euskara erabiltzeko Euskadin. Egiaztatu duenez, 2018ko enplegu publikoaren eskaintzan ez zen kontuan hartu euskararen ezagutza, eta hori Gutunaren 10.4.b) artikulua kontrakoa da.

Informazio gehiago

Informazio gehiago nahi izanez gero, Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunari buruzko Europako Kontseiluaren web orria kontsulta dezakezu ([ingelesez](#) eta [frantsesez](#) dago).

ararteko

Herriaren Defendatzailea

Defensoría del Pueblo